

## Zurekin

Portada &gt; Zurekin

Territorios

## Udaburua, Eguzki Amandrearen ospakizuna


Guardar Regala esta noticia

WhatsApp Facebook X Telegram Print Email

Añádenos en Google



Jon Etxebarria idazle getotarra, 'Udaburua' libururekin.



Iraitz Urkulo

13/06/2026 Actualizado 15/06/2026 - 09:13h.

Badira Euskal Herrian baino idatz ezin daitezkeen ipuinak. Halakoa dugu Jon Etxebarria 'Txontxe' idazle getotarraren 'Udaburua' (Erein, 2026). Istoria euskal mitologiaren sustraietan errotuta dago eta aspaldiko garaietatik datorrigun euskal ohitura bati heltzen dio: udaburu gauaren ospakizuna. Lan honetan, egileak denboraren joanarekin zeharo desitxuratu den tradizio hori berreskuratu eta haren esentziara jo du, antzinako jakinduria gurera ekartzeko eta gaur egungo umeak gure arbasoengana hurbiltzeko ahalegina eginez, zinez estimatzekoa iruditzen zaidana.

'Udaburua' abentura liburu ederra da, estilo bizi eta irakurterrazean idatzia eta haurren gozameneko eta gurasoen inspiraziorako sortua. Ume bikote bat du protagonista, Lore eta Ekhia, auzokideak eta lagun minak. Kanta herrikoiak, esaera zaharrak eta osagai klasiko ugari dituen ipuina izanagatik, ez dakiola inori idazlearen hautu parekidea eta rolen banaketa modernoa oharkabean igaro. Lore neska ausarta da, Ekhia mutikoa baino ekimen handiagokoa.

## Udaburua

Jon Etxebarria 'Txontxe'. Erein, 2026. 63 orrialde.

Baliteke 'Udaburua' istorio tradizionala izatea, baina ume protagonistengan gaur egungo balioak hautesmaten dira, irakurle txikien eredu. Lorek eta Ekhiak elkar errespetatzen eta babesten dute, eta edozein egoeratan elkarri laguntzen diote; letra larriz idatzitako adiskidetasuna da beraiena. Ez zaie gaiztakeria arrastorik antzematen; bai, aldiz, espiritu bihurria eta jakin-min aseegin bat, haurrei dagokien moduan.

Biak fantasiako mundu batean barrena abiatuko dira udaburuaren sekretuaren bila. Harrigarria da elkarrekin zenbat gertaera ero bizi eta zenbat oztopo gainditu beharko dituzten San Joan gauean. Bidean, sorginak, galtzagorriak, jentilak eta beste pertsonaia mitologiko batzuk ezagutuko dituzte, baita hizketan dakiten animaliekin topo egin ere, zein baino zein txundigarriagoa. Kontakizun honetan, 'Txontxe'k irudimena dantzan jarri du eta ukendu, edabe magiko eta hamaika figura eta elementu fantastikori leku egin die.

'Udaburua'k ipuin tradizionalen xarma du, denboran zehar irauten eta zaharkituta geratzen ez diren horietakoa. Internet edo gailu elektronikorik gabe, haur protagonistei naturarekiko konexio zuzena ezartzea eragotz diezaiekeen interferentziarik ez dago. Horren ordez, niri bezala, liburu honen irakurketak belar hezean oinutsik ibiltzeko gogoia piztuko die askori. Edo gaua izarpean igarotzeko. Ez du alferrik egileak istorioa landa eremuan kokatu, non umeak aske ibil daitezkeen, hirian ez bezalako segurtasunaz.

Gure mitologiaren oinarrian dagoen tradizio animistari tiraka, natura erdiguneko elementua da 'Udaburua'n. Abentura osoaren kokaleku eta xede. Izan ere, ipuinaren gakoetako bat haurrek naturarekin duten harreman sanoa da, kontzientea, guztiz errespetuzkoa. Gozamen itzelekoa ere bai. Eta Jon Etxebarriaren hitzei jarraituz, Ivan Landaren orrialde osoko marrazki koloretsuek etxeko txikien irudimena hauspotuko dute, dudarik gabe.

'Udaburua'k gizakion eta naturaren arteko batasun bete aldarrikatzen du. Alde horretatik, Eguzki Amandrea omentzeko eta urtaro berriari ongietorria egiteko ipuin guztiz gomendagarria da. Euskal mitologian sustraitua, gurasoentzat laguntza handikoa izan daiteke haurrak beste izaki bizidunetako errespetuan hezteko. Gure arbasoen memoriarekin batera, ahalik eta mundu hobeia uztea baita hurrengo belaunaldiari egin diezaiekegun oparirik handiena. Uda honetan, irakurri eta... bizi natura!

Más temas Euskera Euskal Literatura

Comenta

Reportar un error

## Lo más leído

- Un desfigurado Topuria sufre su primera derrota en la pelea estelar del cumpleaños de Trump
- Expedientan a tres cargos de la Diputación de Bizkaia por intentar favorecer a familiares en procesos selectivos
- Las carreras truncadas por las pésimas notas de euskera en la PAU: «Nos han jodido el futuro»
- Muere una joven de 21 años tras ser lanzada sin cuerdas cuando practicaba puenting
- Rafa Mir, condenado a ocho años y medio de cárcel por la violación a una joven
- Álex García, roto de dolor al recordar a su pareja Verónica Echegui: «Ella era... es un amor total»
- Directo | España - Cabo Verde
- Las carreras truncadas por las pésimas notas de euskera en la PAU: «Nos han jodido el futuro»
- La sanación de Alejandro Sanz en el BEC
- «Ilia está en el hospital, está hecho polvo»

## Para ti



Rocío Carrasco estalla contra Gloria Camila por el diario de Rocío Jurado



La polémica por los cerros en euskera en la PAU se centra en dos aulas de un tribunal



La surrealista explicación de los monitores que lanzaron a una joven sin sujeción desde un puente: sufrieron «un desmayo» cuando tenían que atarla



Asier Alea: «O Euskadi se abre a la internacionalización o acabará en la irrelevancia»